



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



FACULTAD DE PS
PSIKOLOGIA FA

EUSKAL HERRI
UNIBERTSITATEA

Logopediako Gradua

Harrera gida

2025-2026

FAKULTATEA

PSIKOLOGIA FAKULTATEAREN IZAERA ETA HELBURUAK

Psikologia Fakultatearen balioak

FAKULTATEAREN ANTOLAKUNTZA

KUDEAKETA EGITURA

IRAKASKUNTZAKO EGITURA

ADMINISTRAZIO EGITURA

IKASLEEN ORDEZKARITZA

BESTELAKO ZERBITZUAK

LOGOPEDIA GRADUA TITULUAREN IKASKETA-PLANA

LOGOPEDIAN GRADUATUTAKOEN PROFILA

IKASKETA-PLANAREN EGITURA

LOGOPEDIA GRADUA LORTZEKO ESKOLA-KARGAREN BANAKETA

LEHEN MAILAKO IRAKASGAIAK

MUGIKORTASUNA

IKASTEKO LAGUNTZAK

LIBURUTEGIA

INKLUSIO PLANA

IKASLEENTZAKO INFORMAZIO SAIOAK (TUTORETZA PROGRAMA)

UNIBERTSITATE ORIENTAZIORAKO ZERBITZUA (UOZ)

INFORMATIKA ZERBITZUA

POSTA ELEKTRONIKOA

WIFI ZERBITZUA

MUGIKORRENTZAKO GAUR APLIKAZIOA

ARAUTEGIAK ETA INFORMAZIOA

ARAUTEGIAK

IRAUTE ARAUAK

2025-2026 IKASTURTEKO EPEAK

INFORMAZIOA SAREAN

BESTE ZERBITZU BATZUK

FAKULTATEA

DEKANOAREN AGURRA

Ongi etorri UPV/EHUko Psikologia Fakultatera.

Zentro honen helburua profesional kualifikatuak prestatzea eta Psikologia eta Logopediaren arloko ezagutza sortzea eta zabaltzea da, osasuna eta ongizate indibiduala eta soziala hobetzeko.

Horretarako, Fakultateak gradu prestakuntza-programak eskaintzen ditu, gizartearen premiei erantzuten dietena eta gaitasunak eskuratzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesu koordinatuan oinarritzen direnak. Programa hauek Psikologia eta Logopediaren arloko prestakuntza teoriko-praktiko sendoa ahalbidetzen ditu, bi diziplinetako jarduera-eremuetan.

Era berean, graduondoko prestakuntza-programa bat eskaintzen du. Programa horretan, honako hauek nabarmentzen dira: Osasun Psikologia Orokorreko Masterra (eskumen profesionalak ditu), Hizkuntzaren Neurozientzia Kognitiboko Masterra, bikaintasunaren aipamena duen doktoretza, kalitate-aipamena duen ikerketa-master bat eta espezializazio profesionaleko masterrak. Hori guztia ikerketa-ildo sendotuetan eta kanpoko praktika espezializatuak egitea bermatzen duten erakundeen sare zabal batean oinarrituta dago.

Hau guztia giza talde kualifikatu eta konprometitu batek bultzatzen du, ikerketaren, berrikuntzaren, etengabeko hobekuntzaren, pentsamendu-askatasunaren eta espiritu kritikoaren testuinguruan.

Ikastaro on bat opa dizuet guztioi.



Eneritz Gómez Lázaro

PSIKOLOGIA FAKULTATEAREN IZAERA ETA HELBURUAK

Donostiako Psikologia Fakultatea UPV/EHUko ikastegietako bat da, eta honako helburu nagusi hauek ditu: ikasleei irakaskuntza egokia ematea ondo prestatutako profesionalak izan daitezen eta psikologiaren arloko ezagutza sortu eta hedatzea; guztia, banakakoen eta gizarte osoaren osasuna eta ongizatea hobetze aldera.

Helburuak horiek izanik, fakultateak gradu eta graduondoko prestakuntza programa ematen du, elebiduna, gizartearen premiak asetzen dituen eta gaitasunak eskuratzeko bide irakaskuntza-ikaskuntza prozesu koordinatua duena. Horren bidez, psikologiaren arloko prestakuntza teoriko eta praktiko sendoa eskuratzen du ikasleak, bai eta espezializazio aurreko prestakuntza ere arlo klinikoan eta psikosozialean eta hezkuntzaren, giza baliabideen, erakunde antolakuntzaren eta ikerketaren arloan.

Hori guztia, kalitatezko produkzio zientifikoa duten ikertalde finkatueta eta kanpoko praktika espezializatuak egiteko aukera bermatzen duen erakunde sare batean oinarrituta; eta ondo prestatutako giza talde konprometituak bultzatuta, abiapuntu hartuta berrikuntza, pentsamendu askatasuna eta espiritu kritikoa.

Psikologia Fakultatearen balioak

- Zerbitzu publiko izateko bokazioa
- Pentsamendu askatasuna
- Espiritu kritikoa
- Konpromiso etikoa
- Bikaintasunerako konpromisoa unibertsitateko zereginetan (irakaskuntzan, ikerketa eta gestioan)
- Elkarrenganako konfiantza eta tolerantzia
- Gizarte erantzunkizuna
- Pertsona, Fakultate eta Unibertsitatearenganako ardura

FAKULTATEAREN ANTOLAKUNTZA

KUDEAKETA EGITURA

Fakultateko batzarra

Fakultateko Batzarra da gobernu organo gorena, eta honakook osatzen dute: Dekanoa edo zuzendaria, Dekanordeak, Idazkari Akademikoa eta Administrazioa. Hauek berezko kideak dira. Horiez gain, hauteskunde taldeetako (IIP, AZP eta ikasleak) 30 ordezkari egongo dira. Kideak sufragio unibertsal bidez hautatzen dira.

Fakultateko Batzarrek zereginak egoki betetzeko batzordea eratu eta bere kideak hautatzen ditu.

Dekanoak eta bere taldeak Fakultatea ordezkatzeko eta Fakultateko Batzarrean hartutako erabakiak betearazteko ardura dute.

Osatzen dute:

- Dekanotza taldea
- Irakasleen ordezkariak
- Ikasleen ordezkariak
- Administrazio eta zerbitzuak langileen ordezkariak

Dekanotza taldea

Dekanoa

ENERITZ GOMEZ LÁZARO

psikologia.fak.dekanoa@ehu.eus

Idazkari akademikoa

SAIOA TELLETXE ARTZAMENDI

psikologia.fak.akademi-idaz@ehu.eus

Kalitate eta Graduondoko dekanordea

MANU MACHIMBARRENA GARAGORRI

psikologia.fak.graduondoko-kalitatea@ehu.eus

Ikasle eta gradu dekanordea

EIDER PASCUAL SAGASTIZABAL

psikologia.fak.ikasle-gradu@ehu.eus

Antolakuntza akademiko dekanordea

MIRARI GAZTAÑAGA ECHEVERRIA

psikologia.fak.akantola.dekanordea@ehu.eus

Praktika eta Enplegarritasun dekanordea

GARAZI LABAYRU ISUSQUIZA

psikologia.fak.praktikak.dekanordea@ehu.eus

Mugikortasun dekanordea

EDURNE ELGORRIAGA ASTONDOA

nazioartekoak.psikologia@ehu.eus

Idazkari administratiboa

TERE MARKIEGI AMONDARAIN

psikologia.fak.dekano-idazk@ehu.eus

Administrazioa

LOLI ALONSO CRESPO

loli.alonso@ehu.eus

Irakasleen ordezkariak

- REIZABAL ARRUABARRENA, MARIA LUISA
- GARCIA FERNANDEZ, JOSE IGNACIO
- IBABE EROSTARBE, MARIA IZASKUN
- SANCHEZ DE MIGUEL, MANU
- LARRAÑAGA EGUILEGOR, MAIDER
- ORTIZ ANZOLA, GARBÍÑE
- GOROSTIAGA MANTEROLA, ARANTXA
- VEGAS MORENO, OSCAR
- VERGARA IRAETA, ANA ISABEL
- ARRANZ FREIJO, ENRIQUE
- BALLUERKA LASA, NEKANE
- OCHOA DE ALDA MARTINEZ DE APELLANIZ, IÑIGO
- PASCUAL SAGASTIZABAL, EIDER
- FANO ARDANAZ, EDUARDO
- ARITZETA GALAN, AITOR
- AZURMENDI IMAZ, AITZIBER
- LERTXUNDI IRIBAR, NEREA
- MINGUEZ ALCAIDE, XABIER
- LABAYRU ISUSQUIZA, GARAZI

Ikasleen ordezkariak

- SANCHEZ GONZÁLEZ, MARINA
- ARASCO SANCHEZ, INES
- URTEA CIRIACO, YAIZA
- ESTIBALEZ SIERRA, PAOLA
- OLANO SOTIL, LEIRE
- INTXAURRONGO ARROYO, ARGÍÑE

Administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkariak

- MARTÍNEZ CORUGEIRA, MARI MAR
- MACHÍN RODRIGUEZ, JUNCAL
- MUGURUZA OTERMIN, MARIAN

Batzarreko batzordeak

- Akademia antolakuntzako eta ikasketak baliozkotzeko batzordea
- Ekonomia batzordea
- Berdintasun batzordea
- Batzorde deontologikoa
- Euskera batzordea
- Hauteskunde batzordea
- Practicum batzordea
- Kalitate batzordea
- Batzorde iraunkorra

Batzorde guztiak:

<https://www.ehu.eus/psikologia-fakultatea/batzordeak>

IRAKASKUNTZAKO EGITURA

Sailak eta ezagutza arloak

Irakaskuntza egitura sailek ezartzen dute, nagusiki. Irakasleak koordinatzeko ardura dute sailek eta jakintza arlo bati edo gehiagori dagozkion irakasgaiak irakastekoa, UPV/EHUren irakaskuntza programazioarekin eta ikastegien antolaketarekin bat etorrira. Arlo bakoitzeko espezialitateetako irakasle eta ikertzaile guztiak biltzen dira sailetan.

PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUNAREN PSIKOLOGIA ETA IKERKETA METODOLOGIA (1. eta 2. solairua)

Zuzendaritza: ALEX MUELA

Idazkaritza: ANE EGUREN

Administrazioa: ROSA MACÍAS

Azpisailak: P.E.T.R.A Y METODOLOGÍA

PSIKOLOGIA SOZIALA (2. solairua)

Zuzendaritza: EDURNE MARTINEZ

Idazkaritza: NAGORE ASLA

Administrazioa: TERESE AIZPURUA

Azpisailak: SOCIAL

OINARRIZKO PROZESU PSIKOLOGIKOAK ETA GARAPENA (3. solairua)

Zuzendaritza: EDUARDO FANO

Idazkaritza: UNAI LIBERAL

Administrazioa: MIREN ANZA

Azpisailak: BÁSICA, PSICOBIOLOGÍA Y EVOLUTIVA

Mailako koordinatzaileak

Mailako koordinatzaileak titulazioko maila bakoitzean irakaskuntza programen koordinazioa eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapena zaintzeko ardura duten irakasleak dira. Hori lortzeko maila bakoitzeko irakasleekin harremanetan daude etengabe, eta ikasleen aholkuak jasotzen dituzte mailako ordezkarien eskutik.

Titulazioa Logopedian Gradua

PATRICIA MACIA

Lehenengo maila

MAIDER MUÑOZ

Bigarren maila

JESSICA FERNANDEZ

ADMINISTRAZIO EGITURA

Fakultateko irakasle ez diren langileek osatzen dute eta irakaskuntza eta ikerketa arloak ongi funtzionatzeko ezinbestekoak diren administrazio eginkizunez eta zerbitzuez arduratzen dira.

Akademi Gestioa (Idazkaritza) irakaskuntzarekin lotura duten gai akademikoez arduratzen da: matrikula, espediente akademikoak, ikasleen gestioa, irakasgai aldaketak, talde aldaketak, baliozkotzeak, kredituen amortizazioa, eta abar.

ADMINISTRAZIOA (Beheko solairua)

Administratzailea: Loli Alonso

Laguntzailea: Sara Isabel Llanos

FAKULTATEKO TEKNIKARIA (Beheko solairua)

Arantza González

IDAZKARITZA (Beheko solairua)

Idazkaritzako bulego-burua: Mari Mar Martínez

Osasun Psikologia Orokorra Masterreko idazkaria: Bea Garcia

Idazkaritzako laguntzaileak: Maitane Roca, Juncal Machín

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00; astelehenetik ostegunera, 15:00-16:30 (oporrak izan ezik).

ATEZAINDEGIA (Beheko solairua)

Atezain nagusia (goizez): Aritz Aguirre

Atezain nagusia (arratsaldean): Marian Muguruza

Atezainak: Maria Jesus y Patxi

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00-20:00 (oporrak izan ezik).

IKASLEEN ORDEZKARITZA

Ikasleen ordezkariak bi urtetik behin egiten diren hauteskundeetan aukeratzen dira.

Ikasle Kontseilua

Psikologia Fakultateko ikasle guztien ordezkaritza eta koordinazio organoa da. Kontseiluko kideak hauteskundeetan aukeratzen dituzte. Ikasle guztien ordezkariak dira Fakultateko Batzarrean, sailetan, batzordeetan eta abar.

- Kokalekua: Beheko solairua, Zerbitzu Saila Telf.: 943018305.
- Correo electrónico: cec.fac.psikologia@ehu.eus psikologia.fac.zik@ehu.eus

Fakultatea

Ikasleek Fakultateko Batzarrean eta azken honek onetsitako lan-batzordeetan dituzte ordezkariak. Ordezkarri hauek Ikasleen Kontseiluko kide dira berez

Sailak

Ikasleek Fakultatean irakasten duten sailetan ere ordezkariak dituzte. Sail bakoitzaren arautegietan ordezkari kopurua araututa dator.

UPV/EHUko Gobernu Organoak

Ikasleek Unibertsitateko Klaustroan eta azken honek eskuordetutako batzordeetan dituzte ordezkariak.

BESTELAKO ZERBITZUAK

Eskertza, Iradokizun, Kexa eta Erreklamazioen Kudeaketa Zerbitzua (EIKE)

Fakultateak zuen iradokizun, kexa nahiz erreklamazioak kudeatzeko prozedura bat jartzen du eskura. Atezaintzaren ondoan postontzi bat eta inprimakinak daukazue horretarako. Era berean, Fakultatearen web orrialdearen bitartez jar ditzakezue ere zuen iradokizun, kexa edo erreklamazioak.

<https://www.ehu.eus/psikologia-fakultatea/iradokizunak-erreklamazioak>

Fakultateko Armairu Zerbitzua

Fakultateak armairu batzuk dauzka zuek erabil ditzazuen. Erabili ahal izateko Atezaintzan eman behar duzue izena Armairu Zerbitzuko erabiltzaile bezala.

LOGOPEDIA GRADUA TITULUAREN IKASKETA-PLANA

LOGOPEDIAN GRADUATUTAKOEN PROFILA

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU/UPV) eskaintzen duen Logopedian Graduatu titulazioaren helburua da logopedak prestatzea, osasun-arloko lanbide erregulatu hau jarduteko beharrezko ezagutza zientifikoekin. Diziplinaren berezko teknikak erabiliz, komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmenduak bizitzako etapa guztietan terapeutikoki esku hartzeko gaitasuna ematen duen prestakuntza da.

Helburu hori lortzeko, ikasleek gai izan beharko dute (banaka zein taldean lan eginez) komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmenduen esplorazioa, ebaluazioa, diagnostikoa eta ebaluazioaren pronostikoa egiteko, ikuspegi diziplinarteko batetik. Horrez gain, ezinbestekoa izango da harremanetan eta komunikazioan trebetasun onak izatea, maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan; modu autonomoan ikastea, eta banaka nahiz taldean lan egiteko gai izatea. Gradu amaieran, logopedek gai izan beharko dute komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmenduen prebentzio eta esku-hartze jarduerak diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko.

Titulazio hau hirueleduna da, eta, beraz, irakasgaiak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez emango dira. Gainera, prestakuntza dualeko ibilbidea eskaintzen du. EHUdualaren Ereduaren eta Merezimendu Duala eskuratzeko 822/2021 Errege Dekretuak ezarritako irizpideak betetzen ditu. Horrek esan nahi du unibertsitateko prestakuntza akademikoaren garaian, prestakuntzarekin zuzenean lotutako lan-jarduera ordaindua egingo dela.

IKASKETA-PLANAREN EGITURA

UPV/EHUK eskaintzen duen Logopediako Graduak 240 kreditu ditu; hain zuzen, 60 kredituko lau ikasturtetan banatuta. Derrigorrezko irakasgai guztiak 6 kreditukoak dira; hautazko irakasgaiak, berriz, 6 edo 4,5 kreditukoak.

Kreditu 1= 25 ordu (10 ordu presentzialak gelan eta 15 ordu ez presentzialak *ikasten, lanak, ...*)

Irakaskuntza-lana horrela egituratzen da: derrigorrezko 186 kreditu, hautazko 24 kreditu, derrigorrezko kanpoko praktikak 24 kreditu eta Gradu amaierako lanarena 6 kreditu.

186 derrigorrezko kredituetatik 60 lehenengo mailan ematen dira; beste 60, bigarren mailan; 48 hirugarren mailan eta 18 laugarren mailan.

Hautazko 24 kredituak, berriz, eskaintzen diren irakasgaien artean nahi diren irakasgaiak aukeratuz egin daitezke.

PSIKOLOGIA GRADUA LORTZEKO ESKOLA-KARGAREN BANAKETA

Lehenengoa

- 60 derrigorrezko kreditu

Bigarrena

- 60 derrigorrezko kreditu

Hirugarrena

- 60 derrigorrezko kreditu

Laugarrena

- 24 hautazko kreditu
- 18 derrigorrezko janpoko praktikak kreditu
- 6 kreditu gradu amaierako lana

LEHEN MAILAKO IRAKASGAIAK:

KODEA	IRAKASGAIAK	LAUHILEK.	KREDITUAK
28492	Hizketa eta entzumen-organoen anatomia	1	6
25081	Jokaera-Neurozientziaren Oinarriak	1	6
28495	Introduction to Scientific Methodology	1	6
28496	Hizkuntzalaritza orokorra	1	6
28494	Fundamentos educativos de la logopedia	1	6
28491	Acquisition and Development of Language	2	6
28493	Hizketa eta entzumen-organoen fisiologia	2	6
28497	Logopedia, ciencia y profesión	2	6
28498	Basic Psychological Processes	2	6
25074	Garapenaren Psikologia I	2	6

MUGIKORTASUNA

UPV/EHUK hitzarmen asko ditu unibertsitate ezberdinekin, mugikortasunerako programa ezberdinei erantzuna eman nahian. Ikasleak aukera egin ahal du europar eta amerikar unibertsitateen artean, Estatu Batutakoak eta Kanadakoak ere barne. Ezinbesteko baldintza da aldez aurretik dena gaindituta izatea eta, oro har, B2ren hizkuntza maila eskatu ohi da helburuko unibertsitatean.

<https://www.ehu.eus/nazioarteko-harremanak>

IKASTEKO LAGUNTZAK

LIBURUTEGIA

Carlos Santamaria Dokumentazio Zentroak (Ignacio María Barriola Ikasgelategiaren atzean dago, Europa plazan) 1.200 irakurketa leku dauzka eta psikologiari, ikerketari, hezkuntza zientziei, antropologiari, filosofiari, estetikari eta abarrei buruzko 70.000 lan baino gehiago ditu, bai eta beste Campuseko titulazioekin lotutakoak ere. Liburuak Sailkapen Hamartar Unibertsalaren arabera (SHU) antolatuta dago.

Erreferentzia lan ugari ere dauzka: hiztegiak, entziklopediak, direktorioak, gidak eta abar. 700etik gora dira ere psikologiarekin, hezkuntza zientziekin, antropologiarekin, eta filosofiarekin erlazionaturiko aldizkari harpidetuak. Baita material berezia eta elektronikoak, eta abar.

Ordutegiak eta zerbitzuei buruzko informazioa web orrialdean bila dezakezue: <http://www.biblioteca.ehu.eus>.

INKLUSIO PLANA

Plan honen helburua da ezgaitasunak dituzten ikasleen hezkuntza arloko beharrian bereziei erantzutea eta ikasleok unibertsitatean integratzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

- Ignacio M^a Barriola Eraikina. Elhuyar Plaza, 1. 20018 Donostia
- Telefonoak: 943 018137 / 943 015184 / Fax: 943 01 8230
- E-maila: discap@ehu.eus
- Web: <http://www.ehu.eus/discapacidad/unitateak>

IKASLEENTZAKO INFORMAZIO SAIOAK (TUTORETZA PROGRAMA)

Graduko ikasketetan Fakultateak ikasleentzat interesgarriak diren gaietarako buruzko informazio saioak antolatzen ditu. Helburua da ikasleari arreta pertsonalizatua eskaintzea berori informatu, aholkatu eta gidatzeko jardueren bidez, ikasleak ikastegian integrazioa lortzen, bere garapen curriculumra eta pertsonala eskuratzen, baita lan mundura sartzen eta prestakuntza iraunkorra erdiesten laguntzeko ere..

1. Maila

Harrera eguna (1. lauhilekoa)
Ikaskideen arteko tutoretza (1. y 2. lauhilekoa)

2. Maila

Hautazkoen informazioa (2. lauhilekoa)

3. Maila

Hautazkoen informazioa (1. lauhilekoa)
Practicuma informazioa (2. lauhilekoa)
Garapenarako lankidetza (2. lauhilekoa)
Gradu amaierako lana informazioa (2. lauhilekoa)

4. maila

Gradu amaierako lana informazioa (2. lauhilekoa)

1., 2., 3. eta 4. maila

Mugikortasun programak (1. lauhilekoa)

UNIBERTSITATE ORIENTAZIORAKO ZERBITZUA (UOZ)

Ikasleentzako zerbitzu hau Ikasleen Errektoreordetzaren mendekoa da. Gipuzkoako Campusean Orientazio Talde bat dago, Campuseko orientatzaileak koordinatzen duena. Ikasleek zalantza edo kontsulta akademikoak dituztenean zerbitzu honetara jo dezakete:

- Ikasketa Plan berriak
- Titulazioak eta lan-irteerak
- 2. ziklorako sarbideak
- Prestakuntza osagarria

Orientatzailea eta kokalekua:

Mireya de Castro

Ignacio M^a Barriola Eraikina

Elhuyar Plaza 1, 20018 Donostia

Telf.: 943018256 Fax: 943018230

E-maila: sou@ehu.eus

INFORMATIKA ZERBITZUA

Ikasgeletan, bai fakultatean zein Ignacio M. Barriola eraikineko gelategian direnetan, soinu ekipoa, multimedia ekipoak eta proiektorea daude irakaskuntzaren euskarri gisa.

Fakultatean baditugu ikasgela informatikoak ordenagailu bidezko praktikak egin ahal izateko, halakorik behar duten irakasgaietan. Sarbide libreko ikasgela bat ere badago, bai eta ordenagailu eramangarriak ikasleei maileguan uzteko zerbitzua ere.

POSTA ELEKTRONIKOA

Matrikula egiterakoan helbide elektroniko bat ematen zaie ikasleei. Zerbitzu hau Fakultatearekin harremanetan jartzeko oso erabilgarria da eta helbide pertsonala erabili beharrean. EHU taulatik zure posta elektronikoan berriak jasotzeko (adb. Ikastaroak, bekak, etab.).

<https://list.ehu.eus/mailman/listinfo/tablon-ikasle>

WIFI ZERBITZUA

Psikologia Fakultateko wifi sareari esker, UPV/EHUren hari gabeko sarea eta bertan eskaintzen diren zerbitzu guztiak balia daitezke edozein gailu eramangarriekin: Internet, biblioteca, idazkaritza birtuala, posta elektroniko, etab.

Fakultatean, honako hauek dira Wifi guneak: ataria, ekitaldi aretoa, gradu aretoa, 1., 2. eta 3. solairuetako ikasleentzako guneak, Kimika Fakultateranzko kanpoko lorategiak eta kafetegia.

Eduroam sarrera konexioa

Honako hauek behar dira UPV/EHUren sareari lotzeko:

- Gailu eramangarri bat.
- Sistema eragilea Windows, Linux edo Macintosh izan daiteke.

Internetarako sarreraren konfigurazioa

Sar zaitez instalazio gidetara, interneterako sarrera konfiguratzeko. Honez gain, zerbitzuaren erabilerari buruzko edozein zalantza argitu nahi izanez gero, bai eta instalazioa eta konfigurazioari buruzkoak ere, jo ahal da unibertsitateko Erabiltzaileentzako Zerbitzura 945.01.44.00 telefonoan.

<https://www.ehu.eus/ikt-tic/wifi-eduroam>

MUGIKORRENTZAKO GAUR APLIKAZIOA

Unibertsitateko web orrian zure mugikorrean GAUR kontsultatzea ahalbidetzen dizun aplikazioa deskarga dezakezu. Notak, matrikulen inguruko datuak, klase zein tutoretza ordutegiak etab. kontsultatu ahal izango dituzu.

<https://play.google.com/store/apps/details?id=es.ehu&hl=es>

ARAUTEGIAK ETA INFORMAZIOA

ARAUTEGIAK

IRAUTE ARAUAK

1. ARTIKULUA. Baldintza akademikoak

1.1. UPV/EHUko ikasleek bete beharreko baldintza

- UPV/EHUko graduaren titulazioaren bateko lehenengo mailan lehen aldiz matrikulatzen den ikasleak maila horretako irakasgai guztietarako egin beharko du matrikula.
- Ikasleak gutxienez lehenengo mailako eskola zamaren % 15-a gainditu beharko du (kreditutan neurtuta), ohiko eta ezohiko deialdien artean.
- Matrikulako bigarren urtearen amaieran, aldiz, ikasleak lehenengo mailako eskola zamaren gutxienez % 30 gainditu beharko du (kreditutan neurtuta).

1.2. b) eta c) ataletan ezarritako baldintzak betetzen ez dituenak ezingo du ordura arte egiten ari zen ikasketekin jarraitu.

1.3. 1.2. atalean azaldutako egoeran dagoen ikasleak beste titulazio bateko ikasketak hasi ahalko ditu, balorazio irizpideen eta plazak esleitzeko ikasturte bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera (irizpideok Gobernu Kontseiluak onartzen ditu unibertsitateko titulazioetan sartzeko prozedurari buruzko legedia garatzeko). Bigarren titulazioan ikasten hasi eta ez badu 1.1. atalean zehaztutakoa betetzen, ezin izango du beste ikasketarik egin UPV/EHUko, harik eta bi ikasturte UPV/EHUtik kanpo eman arte.

2. ARTIKULUA. Ikasturte bakoitzerako matrikula

2.1. Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du.

2.2. Ikasleak gehienez 60 kreditu berritarako egin dezake matrikula. Guztira, kreditu berriak eta errepikatutako kredituak batuta, ezingo du 90 kreditu baino gehiagotan matrikulatu.

3. ARTIKULUA. Irakasgai bakoitzerako deialdi kopurua eta azterketa eskubideari uko egitea

3.1. Ikasleak sei ebaluazio deialdi izango ditu irakasgai bakoitzerako.

3.2. Ikasleak uko egin ahal izango dio ebaluazio deialdiari, eta deialdi hori ez zaio kontuan hartuko.

3.3. Irakasgaiaren gidariburuak adierazi beharko du zelan egin diezaiokeen uko ikasleak ebaluazio deialdi bati.

3.4. Seigarren eta salbuespenezko deialdiak epaimahai batek ebaluatuko ditu, Gobernu Kontseiluak onartutako arauei jarraituz.

Ikastegian ikasleren bat badago bosgarren, seigarren edo salbuespenezko deialdian, aurreko paragrafoan adierazitako epaimahaia osatuko da, eta ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan argitaratuko da epaimahaiaren osaera, kideen izen eta guzti. Epaimahaia osatzean, irakasleak aurreko deialdietan zuzentzaile lanetan jardun gabeak izan daitezela zainduko da, ahal den neurrian.

3.5. Sei deialdiak behin agortuta, ikasleak salbuespenezko deialdi bakar bat eska dezake UPV/EHUko errektoreari zuzendutako idatziaren bidez. Salbuespenezko deialdia emateari buruzko erabakia UPV/EHUko errektoreak emango du, kontuan hartuta ikaslearen espediente akademikoa eta beste gorabehera batzuk

3.6. Irakasgai baterako deialdiak agortuz gero, ikasleak ezingo du unibertsitatean ordura arte egiten ari zen ikasketekin jarraitu.

UPV/EHUn jarraitzeko eta gestio akademikorako arauen inguruko informazioa zabaltzeko, ikus ezazu ikasleen arautegia.

<https://www.ehu.eus/es/web/graduak/normativa/gestion-para-las-enseanzas-de-grado>

2025-2026 IKASTURTEKO EPEAK

- Matrikula eta talde aldaketak eskatzeko: irailak 8 eta 12 bitartean (barne)
- Irakasgaien balioztatzea eskatzeko: urriak 4 arte

INFORMAZIOA SAREAN

Psikologia Fakultatearen webgunea (egutegia, azterketak, berriak, etab.)

<https://www.ehu.eus/psikologia-fakultatea>

Webuntis (ordutegiak)

<https://hektor.webuntis.com>

eGela irakaskuntzarako euskarria

<https://egela.ehu.eus>

Bilatu orrialdea: UPV/EHUko langile guztien telefonoak eta e- mailak

<https://www.ehu.eus/bilatu>

UPV/EHUko ikasleentzako zerbitzuak

<https://www.ehu.eus/gipuzkoa/zerbitzuak>

BESTE ZERBITZU BATZUK

Fotocopias Zorroaga

Ordutegia:

Ikasturtean zehar: 9.00etatik 18.00etara, astelehenetik ostiralera.

Eskola-alдитik kanpo: 9:00etatik 14:00etara.

Zerbitzua itxita egongo da uztailaren amaieratik ikasturte hasierara arte.

Tel: 943 018302

e-mail: f.zorroaga@gmail.com

Kokalekua: lehenengo solairuko erdigunean.

Kafetegia

Ordutegia:

8:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera.

Tel: 943015734

Kokalekua: Beheko solairuko erdigunean.